

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia

observatorio del
tercer sector de bizkaia



BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREARI BURUZ EMATEN DUGUN AZALPENA

Bizkaiko Hirugarren Sektorerearen Behatokiaren ustez, **gizarte zibilaren ekimen aktiboek multzoak osatutakoa da hirugarren sektorea. Kudeatzeko autonomia eta independentzia dauka administrazio publikoaren, enpresen, aurrezki-kutxen, alderdi politikoaren eta sindikatuen aurrean. Era berean, irabazi asmorik gabekoa eta boluntarioa da. Hori guztiari kontuan hartuta, bere jarduerak zentzu zabalean esku hartzea dauka helburu, eta, horren ondorioz, gizarte-ingurunea era guztietako arloetatik hobetzea.**

Ez da gauza bera Bizkaiko Hirugarren Sektorerearen Behatokiari hartzaileei dagokien hirugarren sektorerearen azalpen teorikoa eta Bizkaiko Hirugarren Sektorerearen Liburu Zuria bezalako ikerketa-proiektu handienetako baten aztergaia identifikatzeko erabilitako azalpen eragileagoa. Lehenengoaren eremua handiagoa edo zabalagoa da, eta, azalpen eragilean, eragin handiagoa daukate ikerketa-proiektuaren mugek eurek.

Teoria-mailan, behatokiaren hausnarketa orokorraren helburu moduan, egitura formaldun erakundeak ez ezik, legearen arabera eratuta ez dauden ere hartzen dira kontuan; esate baterako, plataformak, gizarte-mugimenduak..., sektoreko erakunde asko bateratzen dituztelako. Era berean, oro har, hirugarren sektoretik garatutako ekintzan zeresana daukaten erakundeak ere hartzen dira kontuan behatokiari hartzaileen artean, nahiz eta azalpena betetzen ez duten edo azalpeneko zenbait irizpide betetzen ez dituzten.

Irizpide guztien artean, badago bat azalpenean ezinbestean agertu behar dena. Zalantza ugari sortu baditu ere, sektorean bertan oraindik eztabaidatu eta hausnartu ez den gaietako bat da gaur egun. Erakundeek, hain zuzen ere, euren kudeaketarako autonomiari eta independentziari eutsi behar diete hirugarren sektorekoak ez diren erakundeek aurrean, hau da, zentzu hertsian hiritarren ekimen asketik sortzen ez diren erakundeak baztertu behar dira, merkatuko, administrazio publikoko edo eragin handiko gizarte-agentek diren alderdi politiko eta sindikatuetatiko erakundeek sortu eta kontrolatu egiten dituztelako.

Esan dugunez, gaur egun erakunde jakin batzuk ez dira hirugarren sektorerearen barruan sartzen, azalpenean adierazitako gainerako irizpideak bete arren ez dietelako euren kudeaketarako autonomiari eta independentziari eusten. Hala ere, egia da adostasun handirik ez dagoela autonomiarik eta independentziarik ez daukaten erakundeek argi eta garbi identifikatzeko adierazleak zehazteko orduan eta gaiari buruzko hausnarketak ez dituela zenbait zalantza argitu, erakundeek multzo homogeenoa den ala ez jakiteko. Hori dela eta, ez dago batere argi horrelako erakunde batzuen jarduerak benetako zerikusia daukan ala ez hirugarren sektoreari buruz proposatu dugun azalpenarekin bat datozen erakundeetako jarduerarekin...

Dena dela, behatokiak hirugarren sektoreari buruzko azalpeneko beste irizpide bat izango balitz bezala hartu du, gaur egun hirugarren sektoreko erakundeek zati handi bat ados dagoelako ideia horrekin. Izan ere, euren kideak ez da hain zalantza jarri edo argiagoa izan da. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi gaiari buruzko eztabaida saihesten dugunik. Horren ondorioz, ez dugu irizpidearen erlatibotasuna saihesten, eta etorkizunean berrikusi egin behar dela onartzen dugu (sektoreak berari buruz egindako hausnarketaren eta eztabaidaren osteko heldutasun-prozesuaren arabera eta parean).

Bestetik, irizpide eztabaidagarri horri dagokionez, kudeaketarako autonomiaz eta independentziaz hitz egiten denean bost agente identifikatzen dira argi eta garbi eta derrigorrean egon behar dira: administrazio publikoa, enpresak, aurrezki-kutxak, alderdi politikoak eta sindikatuak. Hala ere, beste bat ere badago, eliza, alegia, baina zalantza jartzen



da. Horren inguruko zalantzak baztertzetik ez dagoen errealitatearen adierazgarri dira, Bizkaiko hirugarren sektorean benetako zeresana daukaten erakunde askoren jatorriak lotura estu-estua daukalako elizarekin. Zentzu horretan, nabarmendu egin behar da behatokiak errealitate hori errespetatu duela, bere jarduerarako koherentzia bermatzeko asmoz.

Horiek horrela, hirugarren sektorearen azalpenean zenbait irizpide hartu behar dira kontuan, funtsezkoak direlako errealitatea azaltzeko orduan:

- ekimen aktiboak
- gizarte zibiletik sortu dira eta kudeaketarako autonomia zein independentzia daukate hirugarren sektorekoak ez diren erakundeen aurrean: administrazio publikoa, enpresak, aurrezki-kutxak, alderdi politikoak eta sindikatuak
- irabazi asmorik gabekoak eta boluntarioak dira, oro har
- zentzu zabalean gizartean esku hartzen dutenez, era guztietako arloetatik hobetzen dute gizarte-ingurunea; horra hor gizarte-ekintza, kultura, garapenerako lankidetzak, giza eskubideak, osasuna, aisialdia eta astialdia, lana, ingurumena..., kirola izan ezik
- euren jarduera Bizkaitik eta Bizkaian bertan garatzen dute

Hirugarren sektorea...

IRIZPIDEA	INTERPRETAZIOA
Ekimen aktiboak...	Jarduera daukaten erakundeak dira.
...gizarte zibiletik sortu dira eta kudeaketarako autonomia zein independentzia daukate hirugarren sektorekoak ez diren erakundeen aurrean...	Izaera eta jatorri pribatuko erakundeak dira, eta hiritarren ekimen askearen ondorioz sortu dira. Erakundeok kudeaketarako autonomia eta independentzia daukate hirugarren sektorekoak ez diren erakundeen aurrean ¹ : administrazio publikoa, enpresak, aurrezki-kutxak, alderdi politikoak eta sindikatuak. Horrek ez du esan nahi azken erakunde horiek bertan parte hartzerik ez dutela edo diruz laguntzerik ez dutela, baina euren autonomiari eutsi behar diote.
...irabazi asmorik gabekoak eta boluntarioak dira, oro har...	Erakundeon helburua ez da mozkinak bilatzea, eta, mozkinik egonez gero, ezin dira bertako kideen artean banatu, euren helburua betetzeko erabili behar dira eta. Oro har, gobernu-organoetako kideek eta/edo hirugarrenek borondatez lan egiten dute erakundeotan. Horra hor irabazi asmorik gabeko sektorearen irudi juridiko nagusiaren ezaugarrietako bat (fundazioetan eta elkarteetan nagusi den arren, ez da gauza bera gertatzen ekimen sozialeko kooperatibetan eta laneratzeko zenbait enpresatan).
...zentzu zabalean gizartean esku hartzen dutenez, era guztietako	Erakundeon helburua gizarte-ingurunea hobetzea izan arren, beste arlo batzuetan ere garatu



¹ Hirugarren sektorea zer den edo zer ez den adierazten duen azalpen horrek zerikusi handia dauka gaur egun ebatzi gabe dagoen eztabaidako zenbait hausnarketa teorikorekin...

arlotatik hobetzen dute gizarte- ingurunea...	dezakete euren jarduera; horra hor gizarte-ekintza, kultura, gazteria, ingurumena, nazioarteko lankidetzaz... Gizarte-erabilerako erakundeak direnez, euren kideen helburuekin bat datozenetik haratago doazela esan daiteke oro har.
...Bizkaiko Lurralde Historikoan.	Erakundeotako egoitza nagusia edo ordezkaritza Bizkaiko Lurralde Historikoan dago, eta euren jarduera edo jardueraren zati bat bertan garatzen dute.

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuriaren proiektuarekin zerikusia daukan hirugarren sektorearen azalpen eragileari dagokionez, hausnarketa teorikoagoetan oinarrituta, irizpide horiek bete-betean landu dira, harik eta euren interpretazio objektiboena lortu eta adierazle bihurtu arte. *Informazio gehiago nahi izanez gero, "Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuriaren aztergaiaren zehaztapena" agiria kontsultatu behatokiaren web orrian ikusgai dagoen "Liburu Zuria" atalean (www.3sbizkaia.org).*